

Asisko gutuna

2015eko Otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

76. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bai handi eta eder dela gure bilaketa pertsonalean gure kezak, beldurrak, aurkikuntzak norbaitekin partekatu ahal izatea. Gure barnea irekirik bat eginik aurkituko garen pertsonak aurkitzea.

Hauxe dugu egiazko senidetasunezko elkarte: Jainkoaren bilaketan elkar lagundu eta indartzen duten pertsonen osatua.

Gogoetarako gaia

Adiskidetasuna

Pertsonok harremanerako eginak gara. Harremanek konfiguratu gaituzte, garen hori izanarazten. Pertsonen arteko harremanak aldi berean exijenteenak dira eta barne-betetzaileenak, pozik handienak ematen dizkigutenak eta sufri-mendu gehien sortzen digutenak; eta aldi berean gu geu gizatasunez betez doazenak. Harreman hauen artean dago adiskidetasuna.

Adiskideak ez dira aixkireak, ez eta ezagunak direnak, ez eta sare sozialetako kontaktuak ... ere. Adiskideak hauek dira: beraien aurrean, garen bezalakoak agertzen garenak eta hala ere onartzen gaituzten hori edo horiek. Denok izan dugu/ditugu adiskide bat edo batzuk bizitzan. Bizitzako etapa bakoitzean harreman-modu honek modulazio ezberdinak hartzen ditu: haurtzaroko lehen ikastekoak, nerabezaroko adiskidetasun idealizatuak, helduaroan mugatasun eta ahalbideen berri dutenak. Horietan guztietan dugun onena eskaintzen dugu, eta adiskideek duten eta diren onena hartzen dugu.

Adiskideak ez dira aukeratzen, aurkitu egiten dira; nahiz eta lana eskatzen duten, eta hurbil-

tzea, arriskatzea, galtzen jakitea, zauriak barkatzea, eskertzea ... Adiskide bat ez da fabrikatu ekoizten, onartu egiten da. Kideko adina, zirkunstantzia berberak, antzeko historia, bizileku bera ... izateak laguntzen dute harreman hori eratzen, bertan bestearekin berdinetik berdinerak elkartzen naizelarik maila afektibo sakonetan. Zein ederra den adiskide bat edukitzea! "Adiskide bat duenak altxor bat du".

Eta zer ez da izango elkartzen gaituena, ezberdintasunetatik at, Jainkoak gu aurkitu izana dezan. Jada ez dira bizitzako gorabeherak edo gertakizunak lotzen gaituztenak, baizik eta Jesusi jarraitzeko abenturak, edo gutako bakoitza era berezian zauritu duen Jainko biziaren bila ibiltzeak. Hark elkartu gaitu, Hura da gure adiskidetasunaren gontz-lana egiten ari dena. Elkartasun honetan soilik hartzen ditu adiskidetasunak dimentsio sekular ez susmatuak; Jainkoaren maitasun berean, eta Jainkoari, elkartuak gaude. Adiskidetasunak senidetasun-koloreak hartzen ditu eta Aita berarengan anai-arreba izatea.

Ebanjelioko pasartea: Jn 15,12-17

Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiaren asmoen berri; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitizuet. Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela ... Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Aldi hartan entzun zuen (Klarak) Frantziskoz hitz egiten, honen izena sona hartzen ari baitzen ... Berehalaxe nahi izan zuen hura ikusi eta hari entzun, espirituen Aitak erakarria izanik, Harengandik baitzitu batzuk zein besteak lehen bultzadak hartu, nahiz eta era ezberdinean. Eta Frantziskok ez zuen, halako dontzeila dohainduaren ospeak erakarrita, gutxiago desiratzen Klara ikusi eta harekin hitz egitea... Frantziskok bisitatu ohi du; eta gehiagotan Klarak bera; nahiz eta neurtu egiten dituzten ikustaldiak, jainkozko adiskidetasun hura gizakiek ezagutu eta jendartean esamesa maleziatsutan erabil ez zezaten; horregatik, konfiantzazko etxetiar bakar bat lagun zuela gurasoen etxetik irtenda, dontzeila sarritan biltzen zen ezkutuki Jainkoaren gizonarekin, haren hitzak gar handikoak iruditzen baitzitzaizkion eta egiteak, berriz, gizakiaz gaindikoak” (KlaLe 5).

Jainkoak Frantziskori anaiak eta arrebak eman zizkion; bai eta gizaseme eta emakume adiskideak ere: arreba Klara, Settesoli-ko arreba Jakoba, anaia Leon ... Haiekin partekatu zuen funtsean Kristori jarraitzeko nahi bizia, fedea, hurbileko maitasuna, *bizimoldea*, zailtasunak. Haiengan jarri zuen konfiantza eta haiengan bilatu sostengua, kontsolamendua, kontseilua eta atsedena. Zenbait alditan ezingo zukeen zutik iraun bere anaien eta adiskideen ... laguntzarik gabe.

Otoitza

Jauna:
Zein ederra den bihotz bat izatea,
maitatzeko eta barkatzeko gai den bihotza,
laguntzeko eta ulertzeko gai dena,
uste osoa eta konfiantza izateko bihotza.
Baina zein zaila zaidan hori egitea,
egunero hori bizitzea.
Motz gelditzen dira nire indarrak
eta gehiago dira ordu motelak biziak baino.
Señor:

Zu beti hor zaude nire zain,
uste ona, konfiantza enegan jarritz.
Gaurko erorialdia izan bedi igotzeko koska,

zuregana eta senideengana gehiago hurbil
nazaana;
egunean egun izan dezadala
maitasunaren biderei berriro ekiteko kemena.

Gauero begiak ixtean,
gorde ahal nadila zure altzoan,
aita adikor eta maitetsu zaren horren altzoan.

Egin nazazu ausart eskua lotzen jakin dezadan
nire senide gizakiekin,
guztion artean hazi ahal izateko
maitasun eta adiskidetasunaren ostadarra.

Gutuneko azken hitzak

“Burdina burdinaz zorrotzen da, gizakia lagun hurkoarekin harremanetan leuntzen.” (Esaera Zaharren Liburua)

2015ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate otsaileko erreferentzia guztiak:

| | | | | |
|---------------------|----------------|-------------------|----------------|-----------------|
| 1 Mk 1, 21-28 | 7 Mk 6, 30-34 | 13 Mk 7,31-37 | 19 Lk 9,22-25 | 25 Lk 11, 29-32 |
| 2 Lk 2,22-32 | 8 Mk 1, 29-39 | 14 Lk 10, 1-9 | 20 Mt 9,14-15 | 26 Mt 7, 7-12 |
| 3.Mk 5,21-24.35b-43 | 9 Mk 6, 53-56 | 15 Mk 1, 40-45 | 21 Lk 5, 27-32 | 27 Mt 5, 20-26 |
| 4 Mk 6, 1-6 | 10 Mk 7, 1-13 | 16 Mk 8, 11-13 | 22 Mk 1, 12-15 | 28 Mt 5, 43-48 |
| 5 Mk 6, 7-13 | 11 Mk 7, 14-23 | 17 Mk 8, 14-21 | 23 Mt 25,31-46 | |
| 6 Mk 6, 14-29 | 12 Mk 7, 24-30 | 18 Mt 6,1-6.16.18 | 24 Mt 6, 7-15 | |

Otsailean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 26an izando da 19:30tan



Asis Sarea

646 21 48 96